

Azken hamarkadan behera egin du gazteen lan-istripuen kopuruak Euskadin

2015ean 16 eta 34 urte bitarteko 2 lagun hil ziren Euskadin lan-istripuak zirela-eta


Apirilaren 28a **Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Munduko Eguna** dela-eta, Euskadin bizi diren 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen lan-istripuei buruzko datu batzuk eskaintzera dator [Gazteen Euskal Behatokia](#), [OSALAN](#)ek emandako datuak oinarri hartuta.

2015ean, 30.040 bjadun lan-istripu gertatu ziren guztira, Euskadin. Horietatik, 7.393 lan-istripu 16 eta 34 urte bitarteko pertsonen pairatu zituzten (hau da, istripu guztietatik % 24,6). Proportzio hau 2014koaren antzekoa da. Urte horretan gazteen lan-istripu kopuru txikiagoa izan bazen ere (6.997), lan-istripu guztien % 24,9 suposatu zuen.

2015ean 16 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuaren artean izandako istripu kopurua % 5,7 igo da aurreko urtearekin konparatuz. Hala ere azken hamarkadan jaitsiera dezente izan da, batez ere 2009an (- % 29,3), 2011n (- % 17,0) eta 2012an (- % 24,7).

Lan istripuak askoz ohikoagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino. 2015ean 16 eta 34 urte bitartekoek sufritutako bjadun lan-istripuetatik, 5.474 gizonei gertatu zitzaizkien (% 74,0) eta 1.919 emakumeei (% 26,0).

2015ean 16 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuaren artean izandako istripuen erdiak, % 50,3, Bizkaian gertatu ziren, % 30,2 Gipuzkoan eta % 19,6 Araban.




Istripua gertatu zen jarduera-sektoreari erreparatuta, gehienak (% 58,4) zerbitzuen sektorean izan ziren; % 30,5 industrian, % 8,7 eraikuntzan; eta % 2,4 lehen sektorean.

Lesio-mailaren arabera, % 99,5 istripu arinak izan ziren. Hala ere, datu absolutuetan 8 istripu larri gertatu ziren eta beste 2k heriotza ekarri zuten.

2015ean, % 36,4koa izan da 16 eta 34 urte bitartekoen **lan-istripuen indizea**, alegia, bjadun lan-istripu kopurua adin-talde bereko 1000 pertsona okupatuko.

Gizonen eta emakumeen arteko aldeak oso inportanteak dira. 2015ean gizonen arteko istripuen indizea 53,1ekoa izan zen adin tarte bereko 1000 pertsona okupatuko eta emakumeen indizea, berriz, 19,3koa.

2015ean igoera txikia izan arren, azken hamarkadan lan-istripuen indizearen jaitsiera sendoa gertatu da, bai gizonengan bai emakumeengan.



Gazteen Euskal Behatokiak ustiatu ditu [Osalanek, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak](#) eskainitako datu hauek. [Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Sistemari](#) daude eskuragarri, “Lana” deritzon ataleko “Lan-istripuak” azpiatalean eta bertan herrialdearen, sexuaren, adin-taldearen eta lesio-mailaren arabera kontsulta daitezke datuok.